



13

24

...enboraren erabilera berriak  
...idea

...NO INDARKERIA..... 30

# MUNGIako EMakume ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO III PLANA



**MUNGI**  
**UDALA**  
Gizarte-leroa Astea



**EMAKUNDE**  
Emakumeen Erakundeak  
Euzko Legebiltzariaren Barne Departamentua

**MUNGIAKO EMAKUME  
ETA GIZONEN ARTEKO  
BERDINTASUNERAKO**

**III. PLANA**

Eskubide guztiak jabedunak dira. Agiri honen ataletatik bat ere exin kopia daiteke edo inola edo ezereen bidez ere igorri, baldin eta copyrightaren titularrak baimenik ematen ez badu idatziz.

Egilea: Mungia Udala

2013ko maiatzaren 31n Udaletxean egindako ohiko bilkuran aho batez onartuta.

Lege Gordailua: BI-479-08.

# AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA.....</b>	<b>05</b>
------------------------	-----------

<b>EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETZEA .....</b>	<b>06</b>
-------------------------------------------------------------------------------	-----------

<b>EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA.....</b>	<b>14</b>
--------------------------------------------------------	-----------

- 2.1. Autonomia pertsonala bultzatzea eta balioak aldatzea
- 2.2. Baliabide ekonomikoak eta sozialak lortzea eta kontrolatzea
- 2.3. Partaidetza soziopolitikoak eta eragina

<b>ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA .....</b>	<b>25</b>
---------------------------------------------	-----------

- 3.1. Erantzukidetasuna eta denboraren erabilera berriak
- 3.2. Kontziliazio erantzukidea

<b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA .....</b>	<b>31</b>
-------------------------------------------	-----------

- 4.1. Sentsibilizazioa eta prebentzioa
- 4.2. Biktimei arreta egitea



## 1. AURKEZPENA

Argitalpen honek Mungiaiko Emakume eta Gizonen arteko III. Bardintasun-Plana jasoten dau barruan.

Beste pausu bat da oraindik egiteko daukagun bide luze horretan, ekintzak, helburuak eta asmoak batzen dituan dokumentua izateaz ganera, gure herriko gizon eta andren arteko egunerokoa, jeneroen arteko bardintasuna benetako errealidadea izatea lortu baino lehen emoten doguna.

Akabuko hamarkadan egindako ibilbideak konfiantzea emoten deusku eguneroko lanean sinesteko, hau da, erein eta pazientzia handiz, maitasunez, bihotzez ura egiten jakon hazi horretan sinesteko; izan bere, berori da helburu handiagoetarako bidea urratu ahal deuskuna.

Pausuz-pausu, lasai eta kalmaz, baina inoiz bere indarrik galdu barik, gai hau oinarri-oinarrizkoa da eta. Lanari ekin egiteak, eta batez bere Mungiar guztion konfiantzeak eta konpromisoak, lehenago edo gerorago, mendi-tontorra ikusi ahal izatea ekarriko deusku. Orduan, era honetako planak gizarte justuago, bateratuago eta bardintsuagoa lortzeko emon behar izan genduzan pausuen arteko oroitzapentzat hartu ahal izango doguz; eta orduan izango dogu androk eta gizonok benetako aukera bardintasunaz gozatzeko erea.

Bien bitartean, bidea alkarregaz egiten gonbidatzen zaituegu, aspaldian abiatu eta derri-gorrezkoa dan bidaia hau hasi genduan Mungiaiko andra eta gizonik gehienokaz batera. Zuo guztioi eskerrik onenak agertu gura deusueguz emondako laguntzinoagaitik; eta, animo, egin daigun aurrera!

Geure aukerea da eta geure ardurea bere bai. Danok batera, andra eta gizonen arteko bardintasunaren alde!

Izaskun Uriagereka Legarreta  
Mungiaiko Udaleko Alkatea

## 2. EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO GOBERNANTZA HOBETZEA

Europako kontseiluak 1998. urtean honela definitu zuen Mainstreaming-a edo generoaren zeharkakotasuna: "Prozesu politikoak antolatzea, hobetzea, garatzea eta ebaluatzea da; neurri politikoak hartzeko orduan zeresana duten aktore guztiek politika maila eta etapa guztietan genero berdintasunaren ikuspegia sartu ahal izateko". Mungiako Udalaren kasuan, udal neurri politiko guztietan ikuspegi hori txertatzea izango litzateke helburua.

Mungiako Udalaren politikan **mainstreaming-a edo generoaren zeharkakotasuna** txertatzeak zera esan nahi du:

- Udalak esku-hartzen duen fase guztietan (udal politikak erabaki, plangintzak egin, plangintzak gauzatu eta ebaluatzen direnean) Mungiako emakumeen eta gizonen artean ezberdintasunak daudela kontuan hartzen duen funtsezko eta oinarritzko ikuspegi orokorra erabiliko dela. Hau da, beren bizi-baldintzak, egoera sozial, ekonomiko eta kulturalak, eta beren beharrak desberdinak direla onartzea eta aintzat hartzea oinarritzko printzipioa izango dela berdintasuna lortze aldera.
- Udalaren ekimen guztietako arlo eta etapa guztietan berdintasunaren zeharkakotasuna lortzeko estrategia aplikatuko dela. Estrategia horrek erabakietan inplikaturik dauden Mungiako Udalaren arlo guztien eta bertako gizarte-eragileen elkarlana eta adostasuna behar du, baita emakumeen parte-hartze osoa ere..

Europako politika publiko guztietan hauek dira mainstreaming-a edo generoaren zeharkakotasunaren estrategia osatzen duten elementuak:

- Sustatze-lanak egiteko egitura espezifikoak sortzea.
- Bere ezarpenerako koordinazio mekanismoak lantzea.
- Ezagutza tekniko eta formazio espezifikoak.
- Emakumeen eta gizonen errealitatea ezagutzeko datuak eta estatistikak egitea.
- Lanerako jardunbideak eta gidaliburuak sortzea, eta abar.

Ikuspegi honetatik, mainstreaming-ak bat egiten du **governantzarekin**. Azken kontzeptu hori gero eta gehiago erabiltzen da herri-agintaritzaren eraginkortasuna, kalitatea eta emaitza egokia adierazteko. Hau da, gobernatzeko modu berri bat, erabakiak hartzeko eta erabaki horiek gauzatzeko prozesuan arreta jartzen duena.

4/2005 Legeak dioen bezala, gobernantza hori genero ikuspegia txertatuz egin behar da. Aipatutako legeak honela definitzen du genero ikuspegia: "Emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan aintzat hartzea, eta politika eta jarduera guztietan, maila guztietan eta haien plangintza, egitaritza eta ebaluatze fase guztietan, desberdintasunak ezabatze eta berdintasuna sustatzeko helburu eta ekintza zehatzak gauzatzea".

### **Berdintasunaren aldeko gobernantza**

**hobetzeko**, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak jasotzen dituen hainbat eduki azpimarratzen ditu Mungiako emakumeen eta gizonen Berdintasun Plan honek:

- Berdintasunerako udal unitate administratiboak.
- Koordinazio iraunkorrerako egiturak.
- Genero ikuspegia duten estatistika eta azterketa lokalak.
- Genero ikuspegia duten administrazioen trebakuntza ekintza orokorrak eta berdintasunari buruzko berariazko trebakuntza ekintzak.
- Berdintasun alorreko edukiak enplegu publikorako aukeraketa prozesuetan.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexista aldizkari ofizial, web orri eta beste elementu komunikatiboetan.
- Genero-eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa duten arauak.
- Genero ikuspegia duten arauak eta aurrekontu programak, eta bereziki berdintasunera bideratutako aurrekontuak.
- Genero ikuspegia duten plan sektorialak eta zeharkako plan orokorrak.
- Kontratazioetako, diru-laguntzetako eta hitzarmenetako berdintasun irizpideak.
- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua duten epaimahaiak.
- Berdintasunerako parte-hartze organoak, eta partaidetzako organo zein prozesu kontsultiboetan emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua.

Plan honek Mungiako Udalaren funtzionamenduan eta eguneroko eginkizunetan eduki horiek ezartzeko beharrezko diren ekintzak zehazten ditu.

### **HELBURU OROKORRA**

Mungiako emakume eta gizonen bizi-baldintza, egoera sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalen arteko ezberdintasunak aitorzea eta, esku-hartze publikoko fase guztietan, aintzat har ditzaten lortzea. .



**HELBURU ZEHATZAK**

**G1. Mungiako emakume eta gizonen arteko III. Berdintasun Plana egitea eta onartzea. Planak Mungian emakume eta gizonen arteko berdintasuna lor dadin, esku-hartzeko lerroak eta ildoak modu koordinatu eta globalean jasoko ditu; eta bitarteko materialen bidez (ekonomikoak eta giza-baliabideak), departamentu bakoitzak Plan honetan eta Berdintasun Legean aurreikusitako neurriak modu eraginkor eta koordinatuan beteko dituela bermatuko du.**

**EKINTZAK**

**UDALEKO ATAL INPLIKATUAK**

**1.** Mungiako Emakume eta Gizonen arteko Berdintasun Plana onartzea. Halaber, plana publikatzea eta udal langile guztiei eta beste udal erakundeetakoiei eta herritar guztiei zabaltzea.

Berdintasun arloa  
Alkatetza  
Udalbatza

**2.** III. Berdintasun Planaren garapenez, Berdintasun Egitura Iraunkorraz eta Mungiako emakume eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten gai guztiez arduratuko dan politikaria izendatzea.

Alkatetza

**3.** III. Berdintasun Plana inplementatzeko urteko Plan Operatiboa egitea. Plan horretan Berdintasun Sailak eta Udaleko gainerako sail guztiek arlo honetan garatu beharreko ekintzak agertuko dira, baita ekintza horien aurrekontuak ere.

Berdintasun arloa  
Udal arlo eta erakunde guztiak  
Ekonomia- eta finantza-arloa

**4.** Berdintasun Sailaren aurrekontua onartzea, III. Berdintasun Planeko ekintzak gauzatu ahal izateko.

Berdintasun arloa.  
Gizarte Ekintza  
Ekonomia- eta finantza-arloa

**5.** Berdintasun arloko eta Udaleko arlo eta erakunde guztietako ordezkariekin Berdintasun Egitura Iraunkorra osatzea. Berdintasun Sailak lideratuko duen egitura horren egitekoak honakoak izango dira: batetik, urteko Plan Operatiboa gauzatu, koordinatu eta ebaluatzea; eta bestetik, III. Berdintasun Planaren betetze-mailari urtez urteko jarraipena egitea, udal zerbitzuen arteko sinergiak eta praktika onen trukea erraztuta.

Alkatetza  
Baliabide orokorrak  
Udal arlo eta erakunde guztiak



- 6.** Mungiako Udalaren web-gunean berdintasunarekin lotutako udal gaiari buruzko informazioa elkarbanatzeko eta parte-hartzeko espazio espezifikoak martxan jartzea. Gaiak: III. Plana eta bere ekintzen garapena, berriazko informazioa eta formazioa, emakume taldeak eta emakumeen sareak, arriskuan dauden emakumeentzat sarrera zuhurra eta segurua...
- Alkatetza  
Baliabide orokorrak
- 7.** Berdintasunarekin lotutako udal-bandoak onartzea eta argitaratzea; herritarrek sentsibilizatzeko, Udalak hartutako konpromisoen barri emateko, ezagutarazteko, urteko data jakin batzuk gogorarazteko (martxoaren 8a eta azaroaren 25a bezalakoetan), erakundeen arteko kanpainak eta ekintza bateratuak publikizatzeko, herriko gertaera larrien barri emateko...
- Alkatetza  
Udalbatza
- 8.** Udalez gaindi dauden erakundeen arteko sareetan modu aktiboan parte hartzea, gaur egun dauden koordinaziorako egiturak (adibidez, Berdintasuna) edota etorkizunean sortu litezkeenak aprobetxatuta.
- Berdintasun arloa

## G2. Udal-erakundeetan eta beste arlo batzuetan sor litezkeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun-egoerak detektatzea eta kuantifikatzea.

### EKINTZAK

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

- 9.** Udal arloetan eta erakunde guztietako zerbitzuetan sexuaren arabera sailkatutako datuak jasotzen jarraitzea eta Berdintasun arloari aldian-aldian ematea.
- Udal arlo eta erakunde guztiak  
Baliabide orokorrak
- 10.** Udal arloen eta erakundeen datuak aldian-aldian (modu sistematikoan) aztertzea genero ikuspegitik, generoen artean dauden saltoak ikustarazi, berdintasunerako udal-ekintzen eragina identifikatu, programatu eta ebaluatzeko balio dezaketen adierazleak sortzeko.
- Berdintasun arloa  
Baliabide orokorrak
- 11.** Emakumeen eta gizonen eguneroko bizitza garatzeko behar espezifikoak buruzko eta denboraren erabilerrari buruzko azterketa monografiko zehatza egitea. Hau da, batzuen eta besteen egoerari eta errealitateari erantzun aproposa emateko eta baliabide egokiak eskaintzeko balioko duen ikerketa egitea.
- Berdintasun arloa  
Harrera bulegoa  
Ekonomia-sustapena  
Lurralde-arloa
- 12.** Mungiako enpresetan emakumeen lan-egoeraren azterketa monografikoa egitea, sektore eta tamainaren arabera: kontratazioak, promozioa, lan-baldintzak, ea.
- Berdintasun arloa  
Ekonomia-sustapena  
Behargintza

**13.** Azterketa monografikoa egitea –genero-ikuspegitik– udal instalazioen ordutegien eta ikastaro eskaintzen inguruan, emakumeek eta gizonek zerbitzu horiek (kiroldegia, musika eskola, herritarren arreta, liburutegia, euskaltegia, kzgunea, ea.) zelan erabiltzen dituzten aztertzeko, hau da, zein eskaera dagoen eta emakumeen eta gizonen erabilera erreala zein den jakiteko; eta horretara, Udalak eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuetan benetan aukera berbera ematea emakumei eta gizoni.

Berdintasun arloa  
Harrera bulegoa  
Udaltzaingoa  
Kultura, Kirola eta Gazteria. AUE-  
Astiune, kiroldegia, ea

### G3.Gure administrazioan eta erakunde autonomoetan eguneroko jardunerako eraginkorrak diren trebakuntza-ekintzak genero-ikuspegiarekin garatzea, genero-desberdintasun nagusienak eta emakume eta gizonen arteko desberdintasun handienak gertatzen diren gizarte-esparruak zeintzuk diren jakiteko.

#### EKINTZAK

**14.** III. Berdintasun Plana burutu ondoren eta onartu aurretik, planak garatzen dituen kontzeptu eta errealtate nagusiei buruzko eta eginbide nagusien gaineko formazio zehatza ematea Udaleko politikoei.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Berdintasun arloa  
Zinegotziak

**15.** Berdintasun Egitura Iraunkorreko kideekin mailakako eta aldizkako formazioa diseinatzea eta gauzatzea ondoko gaien inguruan: berdintasunerako politikak, Mungiako III. Berdintasun Plana eta urteko Plan Operatiboaren ezarpena eta plan horretan garatzen diren kontzeptu eta errealtateak.

Berdintasun arloa  
Berdintasun egitura iraunkorra

**16.** Udaleko langile-talde jakin batzuei (Behargintza, Haur-eskola, Astiune, Udaltzaingoa, Harrera bulegoa, Gizarte Ekintza...) prestakuntza egokia ematea, III. Planari dagokion urteko Plan Operatiboaren barruan eurek garatu behar dituzten ekintza konkretuei buruz, baita ekintza horien azpian dauden kontzeptu eta errealtateei buruz ere.

Berdintasun arloa  
Kasu bakoitzean dagokion erakunde edo arloa

### G4. Enplegu publikorako hautaketa-prozesuetan berdintasun-irizpideak bermatzea.

#### EKINTZAK

**17.** Udalak eta bere erakundeek eskaintzen duten enplegu publikoetarako deialdietan eta hautaketa-prozesuetako fase eta proba guztietan aukera berdintasuna zaintzea eta bermatzea. Batez ere, diskriminazio anitza jasan dezaketen emakume ezgaituen kasuan.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Baliabide orokorrak  
Aholkularitza juridikoa



## G5. Argitaratzen diren udal-komunikazio guztietan hizkuntza eta irudien erabilera ez-sexista lortzea.

### EKINTZAK

**18.** Udalaren dokumentu eta argitalpen guztietan hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatzeko eta emakumeak ikustarazteko konpromiso politikoa hartzea eta araudia onartzea.

**19.** Udalaren eta udal erakundeen dokumentu, mezu eta publikazio guztietan hizkuntza eta irudien erabilera inklusiboa eta berdintasuneko egiteko dauden jarraibideak eta ildoak berraztertzea eta eguneratzea. Horri buruzko praktika onen gida egitea eta zabaltzea.

**20.** Udaleko politikariei, Berdintasun Egitura Iraunkorreko kideei, Udaleko Komunikazio Zerbitzuko langileei, Euskara Saileko langileei eta udal erakundeetako langileei prestakuntza berezia eskaintzea berdintasuneko komunikazio eta irudi korporatibo inklusiboari buruz, baita hizkuntza ez- sexistaren erabilerari buruz ere.

**21.** Gaur egun udal arlo bakoitzean eta udal erakundeetan eguneroko lanean erabiltzen diren dokumentu guztiak aztertzea eta modu sistematikoan egokitzea. Sail bakoitzak, praktika onen gida oinarritzat hartuta eta hizkuntzaren eta irudien berdintasuneko erabilera inklusiboaren jarraibideak jarraituta, bere web-gunearen, kartelen, dokumentu administratiboen, deialdien, kanpoko komunikazioen, informazio liburuxken, jarduera programen... azterketa eta zuzenketa egitea.

**22.** Herritarrei erakustea emakumeek, bai historian zehar eta bai gaur egun, Mungia garatzeko, aberasteko eta mungiarren ongizaterako egin dituzten ekarpenak zeintzuk izan diren.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Alkatetza  
Zinegotziak

Berdintasun arloa  
Berdintasun egitura iraunkorra  
Udal arlo eta erakunde guztiak

Zinegotziak  
Berdintasun egitura iraunkorra  
Baliabide orokorrak  
Euskararen departamentua

Udal arlo eta erakunde guztiak

Alkatetza  
Zinegotziak  
Berdintasun egitura iraunkorra

## G6. Aurrekontu-arau eta -programen inguruko aurretiko hausnarketa egitea genero-ikuspegia txertatuta, emakume eta gizonengan izan ditzakeen ondorioak kontuan hartuta.

### EKINTZAK

**23.** Berdintasun Egitura Iraunkorreko kideei eta Udaleko araudiak eta aurrekontuak prestatzen dituzten udal langileei berariazko formazioa eta prestakuntza ematea.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Berdintasun egitura iraunkorra  
Ekonomia- eta Finantza-arloa

**24.** Udaleko araudiek eta aurrekontu-programa guztiak generoaren aldetik zelako eragina duten jakiteko azterketa eta neurketa egitea, bereziki itxuraz neutroak diruditen araudi eta aurrekontuen kasuan.

Berdintasun arloa  
Berdintasun egitura iraunkorra  
Ekonomia- eta Finantza-arloa

## G7. Genero-ikuspegia arloko eta zeharkako planen diseinuan, ebaluazioan eta kudeaketan txertatzea.

### EKINTZAK

**25.** Udaleko sail batek (edota udal erakundeek) bere arloko edo zeharkako plana onartu nahi dutenean, sail horren eta Berdintasun Egitura Iraunkorraren arteko koordinazioa eta informazio trukea bermatzea, bai plan hori onartu aurretik eta bai garatzeko unean ere

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Udal arlo edo erakunde eskuduna  
Berdintasun egitura iraunkorra

## G8. Kontratuak, diru-laguntzak eta hitzarmenak esleitzeko irizpideetan genero-ikuspegia txertatzea, betiere legeak baimentzen badu.

### EKINTZAK

**26.** Irizpide komunak sortzea Udaleko arlo eta erakunde guztiak egiten dituzten deialdi guztietako baldintza administratibo eta teknikoan pleguetan emakume eta gizonen berdintasunerako klausula sozialak txertatzeko.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Berdintasun egitura iraunkorra  
Aholkularitza juridikoa.  
Idazkaritza

**27.** Lizitazio batera aurkeztu nahi dutenei sexu-arrazoiengatik inongo zigorrik ez dutela indarrean bermatzen duen ziurtagiria eskatzea.

Udal arlo eta erakunde guztiak

**28.** Gizarte Ekintza Sailak kontratuak esleitzeko erabiltzen dituen irizpideetan enpresa eskaintzaileen langileek berdintasunerako gaietan duten formazioa, esperientzia eta ibilbidea baloratzea eta puntuatzea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten proiektuetan. Halaber, enpresak berdintasunaren aldeko plana duela edota neurriak indarrean dituela ere baloratzea eta puntuatzea.

Gizarte Ekintza

**29.** Tradizioz genero estereotipoak gehien erabiltzen diren arloetan edota genero "bereizketa" handiak gertatzen diren arloetan, akzio positibotzat jotzen diren neurriak garatzen jarraitzea, adibidez, ondoko arloetan: emakumearen enplegua industria arloan, emakumeen jarduera eta jabetza arte munduan, emakume gazteen kirola eta kirol-jarduerak, emakumeen elkarte parte-hartzailea, ea.

Udal arlo eta erakunde guztiak

**30.** Mungia Udalarentzat lan egin nahi duten edo Udalaren diru-laguntza jaso nahi duten enpresa, elkarte eta eragile sozial guztiei jakinaraztea zeintzuk diren Udalaren berdintasun irizpideak.

Udal arlo eta erakunde guztiak

## G9. Udalak antolatutako sariketetako epaimahaietan emakume eta gionezkoen ordezkariak orekatzea

### EKINTZAK

**31.** Udalak antolatutako sariketetako epaimahaietan, hautatzeko eta baloratzeko prozesu guztietako fase guztietan, sustapen eta esleipenetan eta antzekoetan, emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatzea eta bermatzea.

**32.** Emakumeek arlo ekonomikoan, kulturean, artistikoan, sozialean, kirolean, politikoan, akademikoan... Mungia aberasteko eta mungiarren ongizaterako egin dituzten ekarpenak erakustea eta ezagutaraztea.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Udal arlo eta erakunde guztiak

Alkatetza  
Berdintasun egitura iraunkorra

## G10. Politika publikoak herritarrengana hurreratzeko helburuarekin: batetik, berdintasunerako partaidetza-atalak sustatzea, eta bestetik, emakume eta gizonen arteko ordezkariak orekatzea izatea kontsulta- eta partaidetza-prozesuetan.

### EKINTZAK

**33.** Mungia Emakumeen Partaidetzaren Udal Kontseilua (Berdintasun gaietarako herritarrek parte-hartzeko izango duten foroa) sortzea eta abian jartzea. Kontseilu horretako kideak emakumeen elkarteetako ordezkariak, elkarteetako emakumeak eurak eta Mungia entitate eta eragile sozialak izango dira.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Alkatetza  
Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**34.** Udal organo eta kontsulta zein parte-hartze prozesu guztietan emakume eta gizonen presentzia orekatua bultzatzea (%40 baino gutxiago ez, %60 baino gehiago ere ez).

Alkatetza  
Gizarte Ekintza

### 3. EMAKUMEAK AHALDUNTZEA ETA BALIOAK ALDATZEA



Honela defini genezake ahalduntzea: pertsonak bere bizitzari eragiten dioten baliabide eta erabakiei buruzko autoritatea eta boterea areagotzea. Emakumeak, banaka eta talde gisa, euren egoeraren jabe egitearekin dago lotuta, horrela areagotu egingo dutelako erabakiak hartzeko prozesuetan duten parte-hartzea, bai eta boterea erabiltzeko eta eragina izateko ahalmena ere.

4/2005 Legearen arabera, beharrezkoa da “bizitzaren arlo guztietan emakumeek eta gizonek aukera eta tratu berdinak izan ditzaten sustatzea eta bermatzea, eta, bereziki, emakumeen autonomia bultzatzea eta emakumeek gizartearen, ekonomian zein politikan duten posizioa sendotzea”. Horretarako, Euskadiko botere publikoek “neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne”. Ahalduntzea, beraz, hau da:

- Boterea eskuratzeko estrategia bat, erabateko autonomian eta herritartasunean oinarrituta dagoena.
- makumeek eta gizonek aukera berdinak izateko eta tratu berbera jasotzeko ezinbestean jarraitu beharreko prozesua, alor publikoan eta pribatuan berdintasunez parte hartuta eta harreman ez-hierarkizatueta oinarrituta.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren esku-hartzeko I. ardatza (Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea) hiru programak osatzen dute. Mungiaiko Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasun Planak ere sailkapen kontzeptual berbera du:

#### 3.1. AUTONOMIA PERTSONALA BULTZATZEA ETA BALIOAK ALDATZEA

#### 3.2. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK LORTZEA ETA KONTROLATZEA

#### 3.3. PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

#### HELBURU OROKORRA

Emakumeen eta gizonen eskubide politiko, zibil, ekonomiko, sozial eta kulturalak berdintasunez gauzatzeko benetako aukerak bermatuko dituzten neurriak martxan jartzea, baita legeek aitortzen dizkieten gainerako oinarrizko eskubideak –boterea eta baliabide sozial eta ekonomikoaren eskuratzeta eta kontrolatzea barne– gauzatzeko neurriak ere.

## 3.1. AUTONOMIA PERTSONALA BULTZATZEA ETA BALIOAK ALDATZEA

### E1.Emakumeen autonomiaren garapena eta genero kontzientzia bultzatzea

- Independentziaren autopertzepzioa handitzea
- Erabakiak hartzeko autonomia handitzea
- Norbere burua zaintzeko ohitura sustatzea
- Harreman afektibo-sexualetan kontrola handitzea

#### EKINTZAK

**35.** “Erabakiak hartzeko tailerra” izeneko aldizkako formazio prozesu sistematikoa martxan jartzea, emakumeak bere bizitzarekin lotutako erabakiak hartzeko kontrola bereganatzeko behar duen hausnarketa pertsonal eta kolektiboaren prozesuan laguntza izan dezan.

**36.** Kalean emakumeen presentzia duten jarduera kolektiboak antolatzea Mungiako espazio publikoak eta ohiko espazio maskulinizatuak erabilita (plazan, kiroldegian, frontoian, industrialdeetan...), herriko emakumeak ikusgarritzeko eta herritarrei parte-hartze eredu parekatuak eskaini ahal izateko.

**37.** Herritarren segurtasuna areagotzea, emakumeena bereziki, industrialdeetan, herri-inguruko bideetan, jai-espazioetan eta gaueko aisi-lekuetan... herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak eginez eta udaltzaingoaren presentzia eta gertutasuna handituz.

**38.** Ikastetxe eta guraso elkarleen laguntzarekin familiei zuzendutako prestakuntza ikastaro bat antolatzea bizitza eta elikaduraren (osasungarria eta desorekatua) inguruan. Ikastaroan landuko direnak: bulimia eta anorexia, genero ikuspegiak eta estereotipoak elikaduran, gizezkoen eta andrazkoen rola eta edertasun ereduak.

**39.** Ikastetxe eta guraso elkarleen laguntzarekin ikasleei zuzendutako tailer praktikoak antolatzea bizitza eta elikaduraren (osasungarria eta desorekatua) inguruan. Tailerretan landuko direnak: bulimia eta anorexia, genero ikuspegiak eta estereotipoak elikaduran, gizezkoen eta andrazkoen rola eta edertasun ereduak.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

• Bertintasan arloa  
Gizarte Ekintza

• Bertintasan arloa  
Gizarte Ekintza  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
Behargintza

• Udaltzaingoa  
Lurralde-arloa  
Baliabide orokorrak

• Gizarte Ekintza  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
Bertintasan arloa

• Gizarte Ekintza  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
Bertintasan arloa

- 40.** Ikastetxeen laguntzarekin, osasun erreproduktibo-sexualaren inguruko prestakuntzako esku-hartze sistematizatu egitea ikasleekin; neska eta mutil nerabeen berdintasunean oinarrituko den heziketa afektibo-sexuala sustatzeko, eta euren autonomia eta erantzukizuna bultzatzeko.
- Gizarte Ekintza  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
Berdintasun arloa
- 41.** Emakumeek jasaten dituzten gaixotasun arriskutsuenei buruzko prestakuntza ikastaroak egitea aldian-aldian (bularreko eta cervixeko minbizia, fibromialgia, hipo eta hipertiroidismoa, eta abar), euren burua aztertzen eta jagoten ikas dezaten.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Gizarte Ekintza  
Osakidetza
- 42.** Prebentzioko Zerbitzuarekin elkarlanean, doako osasun-zerbitzu erreproduktibo-sexuala martxan jartzea bideragarria ote den aztertzea. Zerbitzu horren lan-irizpideak honako hauek izango lirateke: neska eta mutil nerabeen berdintasuna ahalbidetzea, autonomia sustatzea eta erantzukizuna bultzatzea, beti ere, genero ikuspegian oinarrituta.
- Alkatetza  
Gizarte Ekintza
- 43.** Lasaien elkarrean laguntzarekin, zainzaileei zuzendutako hitzaldi eta bilerak antolatzea aldian-aldian, eurok behar duten zainketari buruzkoak hain zuzen ere (dituzten beharrianak eta baliabidea, norbere burua ondo jagoteko estrategiak...).
- Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza  
Mungialdeko Partzuergoa
- 44.** Urtean zehar edo martxoaren 8a bezalako data estrategikoetan egiten diren ekintza eta materialak emakumeen ahalduntzea sustatzeko edukiz betetzen jarraitzea.
- Berdintasun arloa  
Berdintasun egitura iraunkorra
- 45.** Emakumeek, ezgaitasun motaren bat dutenek barne, egiten dituzten kirolak bultzatzeko eta ezagutarazteko jarduerak antolatzea, urteroko sarien, kirol emanaldi eta erakustaldien, argazki eta materialen erakusketen eta antzekoen bitartez.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune
- 46.** Guraso elkarteetan eta eskolen laguntzarekin, neskek eta mutilak eskola-kirolean parte har dezaten bultzatzea, talde mistoetan zein banakatuetan; beti ere, batzuek eta besteek antolaketa-tratu eta kirol balorazio bera izango dutela bermatuta.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune
- 47.** Hilero-hilero motoz, autoz, furgonetaz... bilerak eta txangoak egingo dituen "Emakume gidatzaileen" klubaren sorrera bultzatzea eta dinamizatzea, emakumeek gidatzeko ohitura eta beharrezkoa den konfiantza har dezaten.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune
- 48.** Genero kontzientziaketa lantzeko, "Beldur Barik" programaren jardueretan parte hartzen jarraitzea eta Berdintasun arloko materialak erabiltzen segitzea.
- Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria



## E2. Balioen aldaketa bultzatzea, sexuaren arabeko rol sozialak eta estereotipoak deuseztatuta

- Funtzio sozialak sexuaren arabera esleitzeko joera aldatzea
- Lan alorreko balioak aldatzea
- Etxe alorreko balioak aldatzea
- Bertintasunaren aldeko jarrera aktiboa sustatzea herritarren artean
- Hezkidetzaren sustatzea

### EKINTZAK

**49.** Hezkidetzari buruzko oinarrizko ikastaro orokorra egitea Mungiako ikastetxe guztietako irakasleentzat; eta ondoren, ikastaro berezituak egitea hezkuntza-maila bakoitzerako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH eta Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza)

**50.** Aldian-aldian hezkidetzari buruzko esku-hartzeak egitea Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle eta familiekin (guraso eskolekin). Saiotuan genero rolak eta estereotipoak eta rol tradizional horien errepikapena zelan ebitatu landuko da, baita generoen desbertintasunean oinarritutako pertsonen arteko harremanak zelan saihestu litezkeen ere, horretarako behar diren materialak erabilita (jolasak, ipuinak, espazioak...).

**51.** Aldian-aldian hezkidetzari buruzko esku-hartzeak egitea Haur Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasle eta familiekin (guraso eskolekin). Saiotuan orientazio akademiko-profesional ez-sexista landuko da (genero ikuspegia zainduta), gazteek aukera librea egin dezaten, sexuen arteko lan-banaketa tradizionalan oinarritu barik.

**52.** Hezkidetzan oinarritzen den "Maitasun harremanen tailerra" antolatzea Udaleko kultur instalazioetan. Tailer horretan ondoko gaiak landuko dira: maitasun erromantikoaren mitoak, kasurako, zeloak, gorputz eta arima emate totalak; baita maitasunaren beste hainbat interpretazio okerrek eragindako dependentzia, menpekotasun eta tratu txarrak ere.

**53.** Neska-mutilentzat eta gazteentzat "Eguneroko bizitzarako tailerrak" antolatzea AUEren laguntzarekin. Tailer horietan ondoko gaiak landuko dira: etxeko-lanak, autonomia pertsonala eta zainketa-lanak eta pertsona autonomoak eta ez dependienteak izaten ikasteko teknikak.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

• Kultura, Kirola eta Gazteria Bertintasun arloa

• Kultura, Kirola eta Gazteria Bertintasun arloa

• Kultura, Kirola eta Gazteria Bertintasun arloa

• Kultura, Kirola eta Gazteria Bertintasun arloa

• AUE-Astiune  
Kultura, Kirola eta Gazteria

- 54.** Gizonentzat “Zainketarako eta eguneroko bizitzarako tailerra” antolatzea Lasaipen elkartearen laguntzarekin, hau da, gaixoak edo dependienteak diren pertsonak zaintzeko eta etxeko-lanak eta autonomia pertsonalerako estrategia eta baliabideak ikasteko tailerrak.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Gizarte Ekintza
- 55.** “Bizitza eskola” izeneko topaketa-programa burutzea, hau da, aldian-aldian mahai-inguruak egitea genero-eredu eta estereotipo klasikoak baztertu dituzten emakume eta gizonekin, hainbat gai aztertzeko (enplegua eta erretiroa gaur egun, bizitza osasuntsua eta jarduera fisikoa, nerabeekiko bizitza, aita onak eta ama onak, eta abar).
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Gizarte Ekintza
- 56.** Erakusketak antolatzea (argazkiak, objektuak, elkarriketak...) Mungia eguneroko bizitza oraintsura arte zelango izan den ikusteko: baserriko bizitza, industrializazioa, ikastetxeak, euskal dantza taldea... Erakusketa horietan emakumeen egitekoa eta ekarpena erakutsiko da, baita emakume eta gizonezkoen eredu ez-estereotipatu batzuek ere (emakume baserritarrak, emakume langileak, emakume kamioilariak, gizonezko erizainak, gizonezko dantzariak, maisuak...).
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Gizarte Ekintza  
Ekonomia-sustapena  
Lurralde-arloa
- 57.** Udalaren ohiko bitarteko eta hedabideak erabilia (inprimatuak nahiz on-line daudenak), aldian-aldian sentsibilizazio kanpaina egitea, genero-eredu tradizionalak alde batera utzita eredu eta rol ezberdinak zabaltzeko.
- Berekontasun arloa  
Baliabide orokorrak
- 58.** Urtean zehar edo martxoaren 8a bezalako data estrategikoetan egiten diren udal material eta jarduerak, rolen aldaketari buruzko mezu positiboak eta emakume eta gizonen praktika onak zabaltzeko erabiltzea, beraien bizitzako arlo guztietan (pertsonala, familiarra, laborala eta soziala) eredu autonomoak eta erantzunkideak diren pertsonenak alegia.
- Berekontasun arloa  
Sailen arteko Batzorde  
Teknikoa
- 59.** Urtero herriko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako ikasleekin lehiaketa parte-hartzaile bat antolatzea: udaleko urteko egutegia/aldizkaria burutzeko (Mungia emakumeen eta gizonen berekontasunerako egutegia) edo urteko skeep zein bakarrizketa emanaldia egiteko (edo antzeko formaturen bat); urte bakoitzean ikastetxeei hausnartzeko eta lantzeko gai nagusi bat proposatuta.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Berekontasun arloa

## 3.2. BALIABIDE EKONOMIKOAK ETA SOZIALAK LORTZEA ETA KONTROLATZEA

### E3. Emakumeen laneratzea eta lan baldintzak eta mailaz igotzeko aukerak hobetzea

- Kalitatezko enplegetan lan tasa handitzea
- Emakume sustatzaileen kopurua eta haien proiektuen bideragarritasuna handitzea
- Soldaten arteko aldea murriztea
- Lanean mailaz igotzen diren emakumeen kopurua handitzea
- Baztertutako taldeentzako estaldura hobetzea
- Ikasketak aukeratzeko garaian sexuen arteko aldea murriztea
- Enpresa pribatuen berdintasunerako planen kopurua handitzea

#### EKINTZAK

**60.** Enpresak eta langileak lan munduko berdintasunari buruz sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpaina egitea, besteak beste, ondoko gaiak lantzeko: lan-eskubideak eta berdintasunaren inguruan gaur egun indarrean dagoen legeria; enpresen diagnostikoak eta berdintasunerako planak egiteko lor ditzaketan diru-laguntzak; emakumeak kontratatu eta lanean promozionatzeko, hau da, emakumeen (gizarte erdiaren) prestakuntza, talentua eta baliabide profesionalak erabiltzeko, lehiakortasunerako dituen abantailak; eta abar.

**61.** Behargintzak enpresak informatzeko eta sentsibilizatzeko egiten dituen bilerak aprobetxatzea berdintasun gaiak bultzatzeko eta sinergiak koordinatzeko eta garatzeko; indarrean dagoen legeria apurka-apurka gauzatzeko joan dadin eta Mungia enpresetan dauden genero ezberdintasunak identifika eta murriztu ditzagun.

**62.** Bertoko sindikatuekin aldian-aldian informazio eta sentsibilizazio bilerak egitea, berdintasun gaiak bultzatu eta sinergiak koordinatu eta gara ditzaten, indarrean dagoen legeria gauzatzeko ahalbideratuta eta Mungia enpresetan dauden genero ezberdintasunak identifikatuta eta murriztuta.

**63.** Langabezian dauden emakumeentzat gaitasun profesionala eta laneragarritasuna hobetzeko ikastaroak egitea, bereiziki premiazko egoera larrian daudenentzat.

**64.** Euskarako ikastaroak (ahozkoa eta idatzizkoa lantzeko) antolatzea lan munduan sartzen saiatzen ari diren emakumeentzat, beti ere, ordutegiak eta aukerak euren beharretara egokituta; herrian eta inguruan lana errazago aurki dezaten.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

Ekonomia-sustapena

Ekonomia-sustapena  
Euskara

**65.** Besteen kontura lanean ari diren emakumeekin aldian-aldian batzarrak egitea, batetik, elkarren arteko laguntza sarea sortzeko, eta bestetik, Udalak euren beharrei erantzuteko eta lan-baldintzak hobetzeko eskura jartzen dizkien baliabideak hobeto ezagut ditzaten.

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

**66.** Berdintasun arloak eta Behargintzak aldizkako batzarrak egitea, jarraipena, koordinazioa eta praktika onen trukea egin ahal izateko.

Berdintasun arloa  
Behargintza

**67.** Nekazaritza munduan, merkataritza, zerbitzuetan eta antzeko autolanetan ari diren emakumeekin aldizkako batzarrak egitea, batetik, elkarren arteko laguntza sarea sortzeko, eta bestetik, Udalak beraien beharrei erantzuteko eta beraien lanak eta ibilbide profesionalak hobetzeko eskura jartzen dizkien baliabideak hobeto ezagut ditzaten.

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

**68.** Enplegua lortu edo aldatu nahi duten emakumeen udal datu-bankua eta CV-bankua garatzen jarraitzea, eta era horretara, Mungiako enpresei behar duten profilaren araberako pertsonen kontaktua eskaintzea.

Ekonomia-sustapena

## E4. Pobrezia edota bazterketa arriskuan edo egoeran dauden emakumeen egoera hobetzea

- Pobreziaren feminizazioa murriztea
- Emakumeen jarduera tasa handitzea eta enplegua uzteko joera murriztea
- Emakumeek eskainitako baliabideekiko duten poztasun maila handitzea

### EKINTZAK

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

**69.** Pobrezia egoeran edo horretarako arriskuan edota gizarte-bazterkeria jasaten duten emakumeei etxebizitzaren alokairua edo erosketa erraztea, batez ere, ama bakarreko familiei.

Gizarte Ekintza

**70.** Udalaren zerbitzuen eta baliabide katalogoaren aldizkako azterketa egitea, aurreko puntuan aipatutako emakumeen eta, batez ere, guraso bakarreko familiez arduratzen diren emakumeen beharren eta egoeren ikuspuntutik.

Gizarte Ekintza

**71.** Guraso (ama) bakarreko familien identifikazioa, zuzeneko arreta eta jarraipena: haurtzaindegi zerbitzua, edadekoentzako eguneko egoitza, umeen elikadura-pentsioa ez ordaintzeak sortzen dituen egoerarako lege-aholkularitza, laguntza ekonomikoak eta abar.

Gizarte Ekintza  
Haurtzaindegia

**72.** Lanerako prestakuntza eta oinarriko konpetenziak hobetzeko prestakuntza-programak eskaintzea gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan edo egoera horretan dauden emakumeei, kualifikazio profesionaleko edo laneratzeko programen oinarri gisa.

Ekonomia-sustapena  
Gizarte Ekintza

### E5. Baliabide sozialak eskuratzeko aukerak hobetzea

- Teknologia berriak
- Garraioa
- Osasuna
- Kirola
- Kultura

#### EKINTZAK

**73.** Ikastetxeetan bertan, eta ikastetxeen laguntzarekin, KZgune berriak sortzea amek eta aitek teknologia berrietara hurbiltzeko aukera izan dezaten. (beren seme-alaben zaintzaren ordutegia bateragarri eginda)

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Kultura, Kirola eta Gazteria

**74.** Iraunkortasuna, irisgarritasuna, mugikortasuna eta antzekoei buruz erabakiak hartzeko foroetan interesa duten emakumeen, emakume-elkarteen eta gaian inplikaturik dauden elkarte mistoetako emakumeen partaidetza aktiboa sustatzea.

Lurralde-arloa

**75.** Emakumeen sormen artistiko eta kulturala sustatzeko udal baliabideak eskaintzen jarraitzea, sormen hori indibiduala zein kolektiboa izan. Erakusketak, katalogoak, emanaldiak, jaialdiak, kontzertuak eta antzekoak antolatzea euren obra ikustarazteko eta jendearen onarpena izateko.

Kultura, Kirola eta Gazteria

## 3.3. PARTAIDETZA SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

### E6. Emakumeen elkarten mugimendua sustatu eta elkarten mugimenduan emakumeen parte hartzea bultzatzea

- Berdintasunerako elkarten kopurua eta bazkidetutako emakumeen kopurua handitzea
- Elkarten mugimenduan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea
- Formula berrien eta sareen bitartez parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea
- Berdintasunerako jarduerak gauzatzen dituzten gizarte erakundeen kopurua handitzea

**EKINTZAK**

**UDALEKO ATAL INPLIKATUAK**

**76.** Herriko emakumeen elkarrekin aldian-aldian batzarrak egitea, praktika onak elkartrukatzeko, III. Bertintasun Planaren garapena koordinatzeko eta elkarren laguntzarekin inplementatzeko; eta horretara, Mungiako emakumeen eta gizonen bertintasun erreala lortzeko.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**77.** Herriko emakumeen elkarrekin laguntza tekniko eta ekonomiko eskaintzea emakumeen eta gizonen bertintasunerako jarduerak burutu ditzaten eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea susta dezaten.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**78.** Herriko elkarte mistoetako emakumeekin aldian-aldian batzarrak egitea, praktika onak elkartrukatzeko, III. Bertintasun Planaren garapena koordinatzeko eta elkarren laguntzarekin inplementatzeko eta Mungiako emakumeen eta gizonen bertintasun errealaren lortzeko.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**79.** Herriko elkarte mistoei laguntza tekniko eta ekonomiko eskaintzea emakumeen eta gizonen bertintasunerako jarduerak burutu ditzaten eta emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea susta dezaten.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**80.** Emakume etorkinekin aldian-aldian batzarrak egitea, batetik, elkarren arteko laguntza sarea sortzeko, eta bestetik, Udalak euren beharriaz erantzun, euren bizitza kalitatea hobetu eta herrian hobeto gizarteratzeko eskaintzen dizkien baliabideak hobeto ezagut ditzaten.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**81.** Emakume etorkinen eta bertako emakumeen arteko batzarrak egitea aldian-aldian, elkar ezagutzeko, bertintasunerako praktika onak trukatzeko eta gizarteratze hobea ahalbidertzeko.

Bertintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**82.** Mungiako nekazaritza munduko emakumeekin aldian-aldian batzartzea, elkar ezagutzeko, esperientziak eta beharrak partekatu ahal izateko, laguntza sarea sortzeko, emakume hauek herrian ikustarazteko eta herrian euren parte-hartzea sustatzeko.

Ekonomia-sustapena  
Bertintasun arloa

**83.** Industria sektoreko emakume profesionalekin aldian-aldian batzarrak egitea, elkar ezagutzeko, esperientziak eta beharrak partekatu ahal izateko, laguntza sarea sortzeko, emakume hauek herrian ikustarazteko eta herrian euren parte-hartzea sustatzeko.

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

**84.** Zerbitzu sektoreko emakume profesionalekin aldian-aldian batzarrak egitea, elkar ezagutzeko, esperientziak eta beharrak partekatu ahal izateko, laguntza sarea sortzeko, emakume hauek herrian ikustarazteko eta herrian euren parte-hartzea sustatzeko.

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa

**85.** Emakume gazteekin (ikasleak, kirolariak, musikariak...) aldian-aldian batzarrak egitea, elkar ezagutzeko, esperientziak eta beharrak partekatu ahal izateko, laguntza sarea sortzeko, emakume hauek herrian ikustarazteko eta herrian euren parte-hartzea sustatzeko.

Kultura, Kirola eta Gazteria  
Berdintasun arloa

**86.** Urtean behin topaketa edo jardunaldi batzuk antolatzean herrian biltzen diren eta lanean jarduten duten emakumeen sare eta talde guztientzat, emakume horiek guztiek prestakuntza-ikastaro, ekintza, elkartruke, bizikidetzeta, ekitaldi... edo antzeko ekimenak elkarrekin bizi eta partekatu ditzaten.

Alkatetzeta  
Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**87.** Lurralde mailan eta autonomia erkidego mailan, emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten gai orokorrak eta espezifiko edo sektorialak lantzeko antolatzen diren foro, batzar, sare, erakunde, jardunaldi eta antzeko ekintzetan Mungiako emakumeen parte-hartzea dinamizatzea eta erraztea, behar den egutegia eta baliabideak eskainita.

Gizarte Ekintza  
Berdintasun arloa



## E7. Emakumei erabaki- eta eragin-alorretara heltzeko aukera gehiago ematea

- Sektore publikoan erabakiak hartzeko postuetan emakume gehiago egotea
- Sektore pribatuan erabakiak hartzeko postuetan emakume gehiago egotea
- Elkarteetako, irabazi asmorik gabeko erakundeetako eta erakunde politikoetako erabaki guneetan dagoen emakumeen kopurua handitzea



### EKINTZAK

**88.** Erabakiak hartzeko lanpostuetan dauden Mungiako emakumeekin aldian-aldian batzarrak egitea, hain zuzen ere, politikan, enpresan, arlo pribatuan edo publikoan, elkarteetan eta antzekoetan erantzukizuna, eragina eta ardura duten emakumeekin; euren esperientziak eta beharrak ezagutzeko eta partekatzeke eta izan dituzten oztopoak gainditzeko eurentzat probetxugarriak izan diren baliabideak eta estrategiak identifikatzeko (prestakuntza, sentsibilizazioa, aholkularitza, mentorizazioa...).

**89.** Sentsibilizazio ekintzak egitea zuzendaritza karguetan eta erabakiak hartzeko postuetan dauden emakumeak ikustarazteko eta baloratzeko, E3 atalean jasotakoan antzekoak.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Alkatetza  
Berdintasun arloa  
Ekonomia-sustapena  
Gizarte Ekintza

Ekonomia-sustapena  
Berdintasun arloa



## 4. ANTOLAKETA SOZIAL ERANTZUKIDEA

Pertsonen oinarrizko beharrak asetzeko eskatzen duen ezinbesteko denbora eta lana ikusezin bilakatu izanak kontziliatzeko arazoak sortu ditu. Denbora eta lan hori ukatzearen edota ikusezina bilakatzearen ondorioek tentsio eta zailtasun handiak sortzen dituzte pertsona ororen eguneroko bizitzaren antolaketan, arlo guztietako beharrak bateratzeko eta asetzeko (arlotan pertsonala, familiarterkoa, soziala eta lanekoa).

Egoera hau lan-kontzeptuaren ikuspegi androzentriko eta mugatuaren ondorio zuzena da, industrializazio garaian sortutakoa. Gure gizartean ikuspegi honek zereginen sexukako banaketa finkatzen du: gizonen lan ordaindua izango dute (enplegua) eta eurak izango dira baliabide materialen hornitzaile ofizialak (pertsona aktiboak, lanean zein langabezia egon), eta emakumeek etxeko (balio ekonomikorik gabeko lanak) eta zainketa lanetan jardungo dute, pertsona zainketaile bilakatu dira (pertsona "inaktiboak eta mendekoak") haien "emetasunaren" luzapen "naturala" balitz legez.

Emakumeak lan-merkatuan (enplegua) sartzen hasi zirenetik, kontziliazio arazoak arazo sozial bilakatu dira. Arazo horiek direla eta, emakumeek nahiz gizonen zailtasun handiak dituzte bizitzaren hainbat alorretan hartu beharreko erantzukizunei aurre egiteko eta horrek hainbat ondorio ekarri ditu: jaiotze-tasa murriztea, familiarren eta lanaren esparruan gatazkak areagotzea, eta abar. Egoera honen konponbidea, justua izatea nahi badugu behintzat, ezin dugu oinarritu emakume etorkinen lan prekarioan. Hori dela eta, antolaketa sozial erantzukide berri baten premia dago, emakumeek eta gizonen euren behar guztiak asetzeko aukera izan dezaten eta bizitzaren arlo guztietan (bai publikoan bai pribatuan) dituzten erantzukizunei modu justu, orekatu, autonomo eta interdependentean aurre egin diezaieten.

Horretarako, beharrezkoa da gizonen erantzukidetasuna, baita estatuarena, merkatuarena eta gizartearena ere. Itun sozial berria behar da, familiako ardurak zuzen banatu, enpresen kultura aldatu, zerbitzu publikoen estaldura eta malgutasuna areagotu eta hirigintza plangintzak aldatuko dituen.

4/2005 Legeak jasotzen duenez, bizitza pertsonala, familiarakoa eta lanekoa bateratzea lehenetsuneko helburua da eta Euskadiko administrazio publikoek hiru neurri mota bidez garatuko behar dute helburu hori lortzeko esku-hartzea: etxeko lanetan gizonen erantzukidetasuna sustatzea, enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familiarakoaren beharretara egokitzea eta zerbitzu soziokomunitarioak, prestazio ekonomikoak eta neurri fiskalak sortzea eta egokitzea. Guzti hori ikastetxeetatik hasita, beren beregi gizonekin lan eginda, lanaldia malgutzeko eta berrantolatzeko neurriak ezarrita, hori betetzen duten enpresei laguntzak emanda eta zerbitzu soziokomunitario eskura errazak antolatuta (malguak eta sarbide errazekoak), pertsonak zaintzeko beharrak ase ahal izateko.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Bertintasunerako V. Planaren esku-hartzeko II. Ardatza, Antolaketa Sozial Erantzukidea, bi programek osatzen dute. Mungia Emakume eta Gizonen arteko III. Bertintasun Planak sailkapen kontzeptual berbera jarraitzen du:

### 4.1. ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

### 4.2. KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEALE

#### HELBURU OROKORRA

Antolaketa sozial erantzukide berri baten alde lan egitea, hain zuzen ere, emakumeek eta gizonen bizitzaren arlo guztietan (bai publikoetan eta bai pribatuetan) modu justu, orekatu, autonomo eta elkarren mendekotasunean euren beharrak ase eta euren erantzukizunei aurre egitea bideratuko duen antolaketa soziala.

## 4.1. ERANTZUKIDETASUNA ETA DENBORAREN ERABILERA BERRIAK

### C1. Erantzukidetasuna eta zainketaren etika sustatzea

- Amatasun eta aitatasun baimenak parekatzea
- Kontziliazio neurriei heltzen dieten gizonen kopurua areagotzea
- Generoen arteko desoreka murriztea etxeko eta zainketa lanetan emandako denborari dagokionez
- Neska-mutilen erantzukidetasuna areagotzea

#### EKINTZAK

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

**90.** Informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutzea kontziliazio erantzukidea zer den erakusteko eta gure eskubidea dela azaltzeko, baita kontziliazio hori lortzeko lanari buruzko legeriak zer ezartzen duen jakinarazteko eta enpresa publiko eta pribatuetan jasotako praktika onak zabaltzeko, bereziki, gizonak animatu daitezen dauden aukerak erabiltzera: ordutegi malgutasuna, aitatasun baimenak, eta abar.

Berdintasun arloa  
Baliabide orokorrak

**91.** Haurrak, adin txikikoak, mendeko helduak eta haurrak zaintzeko Udalak eskaintzen dituen baliabidei buruzko informazio eta sentsibilizazio kanpainak burutzea aldian-aldian: haurtzaindegia, eguneko zentroa, adinekoen egoitza eta antzekoak. Euron gaineko informazio praktikoa emanda: eskaera epeak, sartzeko baldintzak eta prozedurak; dauden zerbitzuak, euren funtzionamendua, baldintza ekonomikoak, diru-laguntzak; eta abar.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza  
Baliabide Orokorrak

**92.** “Kontrakorrente” edo “Ezohiko” izeneko mahai-inguru ziklo bat antolatzea, ondoko gaiak lantzeko: elkar zaintzea eta zaintzaren etika, maskulinitasuna bizitzeko eta gizona izateko beste era batzuk, aitatasun osoa eta pozgarria, eta abar.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**93.** Adin guztietako pertsonak, bai haurrak bai adinekoak, zaintzen ikasteko gizonen zuzendutako “Zaintza tailerrak” burutzea, zainketarako trebeziak, estrategiak eta gaitasunak ikasi eta garatzeko.

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria

**94.** Ikastetxeetan “Zaintza tailerrak” ematea neska-mutilei, euren etxeko ardura eta zeregin errealen jarraipena eginda (familien parte-hartze eta laguntzarekin).

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune

**95.** “Erantzukidetasunerako jolas eta jostailuen gida” egitea eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako neska-mutilen irakasleei eta familiei zabaltzea.

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria

**96.** Mungiako gizon zaintzaileekin aldian-aldian batzarrak egin (bilera-egutegia adostuta), euren esperientziak eta beharrak ezagutzeko eta partekatzeko, baita zaintzeko baliabideak eta estrategiak ikasi eta partekatzeko ere.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**97.** Lasaipean elkartarekin batera herriko gizon zaintzaileak identifikatzea eta pertsona zaintzaileen elkartean eta "Zaintzen duten pertsonak zaindu" proiektuan euren parte-hartze aktiboa sustatzea.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**98.** Zaintzaileentzat "Zaintzen duten pertsonak zaindu" proiektua martxan jartzea, pertsona horiei laguntza zabala eskaintzeko: laguntza psikologikorako sarea, gizartearen aitortzea, baliabide ekonomikoak, zerbitzuak, prestakuntza pertsonala, larrialdeetarako prestakuntza, aisialdirako denbora eta abar.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**99.** Haurren, mendekoen edo adineko pertsonen zaintza euren familien ardura ez ezik gizarte osoarena denez, bertoko elkarten laguntzarekin herrian dauden beharrezan ikerketa egitea eta udal baliabideen egokitzapena aztertzea, zaintza gizarte-erantzukizuntzat hartuta.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**100.** Sentsibilizazio kanpaina egitea, herriko ikastetxeen laguntzarekin, kontzeptu nagusi bi bultzatzeko eta zabaltzeko: batetik, gizartearen garapen iraunkorra; eta bestetik, pertsonen zainketarako gizarte-erantzukidetasuna.

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria

## C2. Emakumeek aisialdiaz gozatzeko eta autonomia ekonomikoa lortzeko erabiltzen duten denbora handitzea

- Generoen arteko desoreka murriztea bizitza sozialari eskainitako denboran
- Generoen arteko desoreka murriztea lan ordainuari eta prestakuntzari eskainitako denboran

### EKINTZAK

**101.** Informazio eta sentsibilizazio kanpainak egitea ikus dezagun zelango ondorioak dituzten emakumeentzat (euren etorkizunerako, autonomiarako eta bizi kalitaterako) lanaldi erdiko kontratuek (era mugagabeen eta eskusiboan), eszedentziek eta, batez bere, pertsonak zaintzeko enplegua uzteko erabakiek.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Berdintasun arloa  
Ekonomia-sustapena

**102.** Etengabeko prestakuntza programa bat sustatzea lanik gabe dauden eta lanean ari diren emakumeen lanerako prestakuntza hobetzeko, edota jadanik martxan dauden programetan, parte-hartzea errazteko baliabide eta neurriak eskaintzea.

Ekonomia-sustapena

**103.** Zaintzaileei zuzendutako tailerrak burutzea, bereziki emakume zaintzaileei zuzendutakoak, beste pertsona bat/batzuk zaintzen ari direnean denbora libre pertsonala izateak eta denbora horretaz gozatzeko sortzen dien erru-sentsazio horri buruzkoak, sentsazio hori identifikatzeko eta gainditzeko.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**104.** Arreta zerbitzuak eta etxer etxeko laguntza, tele-alarma, aldizkako telefono bidezko txkeoa eta antzeko zerbitzuak ugaritzea, zaintzaile guztiei eta batez ere, emakume zaintzaileei askatasun apur bat emateko, hau da, derrigorrean beti ondoan (jagoten duten horren ondoan) egon behar ez izateko.

**105.** Festetako programen ordutegiak eta edukiak aztertzea eta Mungiako adin guztietako emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzeko neurriak proposatzea, bai festetako egitarau orokorrean eta bai beraiantzako bereziki antolatutako ekitaldi espezifikoaren batean.

AUE-Astiune  
Kultura, Kirola eta Gazteria  
Festen batzordea

**106.** Herriko kirol elkarte eta jardunen ordutegiak eta aukerak aztertzea eta Mungiako adin guztietako emakumeen parte-hartze aktiboa sustatzeko neurriak proposatzea, bai lehiaketa-kirolean eta bai olgeta-kirolean.

AUE-Astiune  
Kultura, Kirola eta Gazteria

**107.** Udako hilabeteetako "Udapasak" zerbitzuaren ordutegia eta egutegia handitzea eta luzatzea, eta urteko beste garai batzuetara ere zabaltzea, adibidez, beste oporraldietara eta eskolaz kanpoko ordutegira ikasturtean zehar.

AUE-Astiune



## 4.2. KONTZILIAZIO ERANTZUKIDEA

### C3. Enpresen kultura kontziliazio erantzukiderantz aldatzea

- Enpresa pribatuetan kontziliazio erantzukiderako neurriak areagotzea
- Administrazioan kontziliazio erantzukiderako neurriak areagotzea
- Kontziliazio erantzukiderako neurriekiko biztanleen gogobetetzea areagotzea

#### EKINTZAK

**108.** Lan-ordutegien arrazionaltasunari eta laneko sarrera-irteera ordutegi malguari buruzko sentsibilizazio eta informazio kanpainak burutzea aldian-aldian; izan ere, neurri horiek produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzeaz gainera, kontziliazio erantzukidea eta bizitza pertsonala, familia-bizitza eta bizitza sozialaren kalitatea hobetzen dute. Eta gizon langileek legezko kontziliazio neurriak hartzen animatzea, batez ere, aitatasun baimenak.

**109.** Berdintasunerako Euskal Legeak ezarritako betebeharrak legalei buruzko eta enpresa pribatuetan diagnostikoak eta berdintasunerako planak egiteko dauden diru-laguntzei buruzko informazioa zabaltzea herriko enpresa guztiei. Dauden diru-laguntzen deialdien jarraipena egitea eta, urtero, gutxienez enpresa batek edo bik berdintasunerako neurriak ezar ditzatela edota diagnostikoa eta berdintasunerako plana egin dezatela lortzea; eta ahalegin eta emaitza hauek herrian erakustea.

**110.** "Mungiak kontziliatzen du, kontziliatzea ondo ikusita dago, eskerrik asko zuk ere kontziliatzeagatik" edo antzeko izeneko kanpaina martxan jartzea, emakume eta, batez ere, gizon langileei kontziliatzeko dituzten eskubideak eta baliabideak azaltzeko, kontziliazioa eta aitatasun erantzukidea sustatuta eta enpresetako praktika onak zeintzuk diren azalduta (lan-ordutegitik kanpo bilerak ez egitea, ordutegia errespetatu eta sistematikoki lantegian denbora gehiago ez egotea eta abar)

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Igualdad  
Promoción Económica

Igualdad  
Promoción Económica

Igualdad  
Promoción Económica

### C4. Zerbitzuen estaldura eta euren ordutegiaren malgutasuna areagotzea

- Zerbitzu soziokomunitarioen eta herritarrei arreta eskaintzeko zerbitzuen ordutegiaren malgutasuna areagotzea, bertako langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta
- Zerbitzu soziokomunitarioen estaldura maila areagotzea, bertako langileen kontziliazio erantzukidea bermatuta

#### EKINTZAK

**111.** Udal zerbitzuek duten jendaurreko ordutegia malgutzea, herritarren beharrezanean hobeto egokitzeko.

**112.** "Udapasak" zerbitzuaren ordutegia luzatzea, herritarren beharretara hobeto moldatzen dela bermatzeko.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Gizarte Ekintza  
Harrera Bulegoa

Gizarte Ekintza  
AUE-Astiune

### C5. Hirigintzako plangintza eta herritarrei zuzendutako zerbitzuak aldatzea kontziliazio erantzukidea errazteko

#### EKINTZAK

**113.** Espaloiak hobetzea eta espaloi estua duten kaleetan espaloi zabalagoak egitea, mugikortasun arazoei aurre egiteko.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Hirigintza eta ingurumena



## 5. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larri eta onartezina da, gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren adierazpen larrienetako bat. Horregatik ezinbestekoa eta premiazkoa da horren aurka lan egitea. 4/2005 Legeak jasotzen duenez, epe laburrean biktimek babesteko eta haiei arreta eskaintzeko neurriak eta baiabideak sortu behar dira, eta epe erdi eta luzean, emakumeen aurkako indarkeria gizon eta emakumeen arteko desberdintasunaren ondorio dela erakusten duten sentsibilizazio eta prebentzio ekintzak burutu behar dira. Indarkeria gutxitzen joango da, erabat desagerrarazteko bidean, emakumeen eta gizonen berdintasun erreala lortzen dugun neurrian.

4/2005 Legeak emakumeen aurkako indarkeria horrela definitzen du: “sexu arrazoiagatik egindako edozein ekintza bortitz, min fisikoa, sexuala edo psikologiko dakarrena edo ekar dezakeena edo emakumeari sufrimendua eragin diezaiokiena, horrelako ekintzak egiteko mehatxua, derrigortzea edo askatasun arbitrarioa ukatzea ere barnean hartuta, bai bizitza publikoan bai pribatuan”. Aldi berean, Legeak Euskal Administrazio Publikoek esku hartzeko neurriak biltzen ditu, alde batetik ikerketari, prebentzioari eta kasu hauetan parte hartzen duten langileen trebakuntzari lotutakoak eta, bestetik, biktimei arreta osoa eta babes eskaintzekoak.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren esku-hartzeko III. Ardatza, Antolaketa Sozial Erantzukidea, bi programek osatzen dute. Mungiako Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasun Planak sailkapen kontzeptual berbera jarraitzen du:

### 5.1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

#### 5.2. BIKTIMEI ARRETA EGITEA

#### HELBURU OROKORRA

Ikerkuntzaren, prebentzioaren eta prestakuntzaren bitartez emakumeen aurkako indarkeriari errotik aurre egiten jarraitzea, baita gure administrazioetik biktimei eta euren familiei arreta osoa eta babes egokia eskaintzen segitzea ere.

## 5.1. SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA

### V1. Indarkeriarik gabeko portaera ereduak bultzatzea

- Emakumeen aurkako indarkeria irauarazten duten irudi eta edukiak ezabatzea
- Indarkeria hori agerian jartzen duten programa eta jardueretan gero eta pertsona gehiagok parte hartzea
- Sentsibilizazio eta prebentzio jardueretan gizonak gehiago parte hartzea
- Gizarteak genero indarkeria mota ezberdinei buruz duen pertzepzioa areagotzea, batez ere gazteen artean

#### EKINTZAK

**114.** Publizitate kanpaina guztietan erabiltzen diren eduki, irudi, kartel, ikuskizun eta gainerako osagarrien azterketa sistematikoa egitea, emakumeen kontrako indarkeriaren ereduak ez direla erreproduzitzen edo berarekiko jokabide permisiboak ez direla adierazten edo justifikatzen bermatzeko.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

• Berdintasun arloa

- 115.** Genero indarkeria prebenitzeko asmoz Udalez gaindi antolatzen diren eskola programa, kanpaina eta tailerretan (kasurako, “Beldur Barik” edota “Nahiko!”) parte-hartze aktiboa izatea.
- Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria
- 116.** Maskulinitateari eta indarkeriari buruzko eta maskulinitate berriei buruzko “Gizonduz” programaren ikastaroen antolaketa aktiboa sustatzea, gizonen artean eta emakumeen eta gizonen artean errespetuzko harremanak eta elkarren arteko tratu onak zabaltzeko.
- Berdintasun arloa
- 117.** Gazteen artean, bereziki mutil gazteen artean, sortu diren indarkeria-zantzen aurkako hezkuntza esku-hartze egitasmo prebentiboa diseinatzea eta gauzatzea, genero azterketan oinarriturik maskulinitate hegemonikoa aztertuta eta maskulinotasun eredu berriak proposatuta.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
Gizarte Ekintza
- 118.** Gazteen artean, bereziki mutil gazteen artean, sortu diren indarkeria-zantzen aurkako prebentzio, disuasio eta polizia-jardunerako programa diseinatzea eta gauzatzea.
- Gizarte Ekintza  
Udaltzaingoa
- 119.** “Bikotekideen arteko harremanaren haustura ez-bortitzerako gida” egitea eta zabaltzea, batez ere, neska eta mutil gazteen artean.
- Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria
- 120.** Bikotekideen arteko harremanaren haustura ez-bortitzerako gidan oinarritutako lehiaketa bat antolatzea, adibidez, umorezko antzerki motzeta, skettchena, bakarriketena, edo antzekoren bat.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune
- 121.** Indarkeria saihesteko oinarritzko eta funtsezko kontzeptuen berri ematen duen (indarrez muxutxo bat ere ez, ez da ez... eta abar) eta indarkeria egoeren aurrean zer egin azaltzen duen gida egitea eta zabaltzea, estrategia orokorre eta bertako baliabide zehatzei buruz informatzeko.
- Berdintasun arloa
- 122.** “Ez da normala, ez zaituzte konformatu” kanpaina prestatzea eta gauzatzea; herrian bizikidetzat hondatzen duten eta emakumeen segurtasuna eta askatasuna mugatzen dituzten kaleko garrasi, borroka, eraso, jipoi, mehatxu... eta emakumeen kontrako gainerako indarkeria modu guztien aurkako kanpaina hain zuzen ere.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune
- 123.** Entrenatzaileen, jokalarien, neska-mutilen eta familien, hau da, kirolean aritzen den pertsona guztientzako prestakuntza tailerrak egitea aldi-aldi, errespetuan oinarrituta, kirol praktika eta kirol lehia osasuntsua sustatzeko eta jokabide sexistak, bortitzak eta errespeturik gabekoak saihesteko.
- Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune



## V2. Portaera bortitzen prebentzioa hobetzea

- Informazioa biltzeko sistemak eta haien homogeneousazioa hobetzea
- Azterketak eta ikerketak egitea
- Emakumeek segurtasun eza nabaritzen duten lekuak identifikatzea
- Sexu-jazarpena prebenitzeko protokolo gehiago ezartzea

### EKINTZAK

**124.** Genero indarkeria, etxeko indarkeria eta sexu-borbaketa kasuetarako koordinazio-protokoloa sinatu duten erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko, gertatzen diren kasuen jarraipen zuzena egitea koordinazio eta ebaluazio mahaien bitartez, edukiak ondo betetzen diren jakiteko eta protokoloan aldizkako aldaketak egiteko edota koordinazioa hobetzeko egokitutako prozedura berriak jasotzen dituzten dokumentu berriak gehitzeko.

**125.** Azaroaren 25aren inguruan jendeari errealitate hau ikusaraziko dizkieten ekintzak eta jarduera publiko jendetsuak prestatzea eta egitea herrian.

**126.** Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko masterra egiten ari diren ikasleen eta gai horretan antzeko esperientzia eta formazioa duten pertsonen praktika-eskariak onartzea, praktika horiek gure herriko Bertintasan arloan egin ditzaten.

**127.** Herriko nerabeekin "Ez, eskerrik asko" heziketa afektibo-sexuala lantzeko tailer aktiboa egitea, adibidez, kontzeptu hauek erabiliz euskarri ezberdinetan esloganak eta irudiak sortzeko: maitasun posesiboa?, ez, eskerrik asko; 12 urterekin bikote-bizimodua?, ez, eskerrik asko; jeloskortasuna?, ez, eskerrik asko; eta abar. Eta, bukaeran, egindako lanekin herritar guztiei zuzendutako erakusketa bat antolatzea.

**128.** Mungiako ikastetxeetan eskola-jazarpenaren errealitatea aztertuko duen ikerketa egitea. Egoera horiek ikasleek dituzten genero-estereotipo eta rolekin duten erlazioa ikertzeko; eta hortik, familiek, irakasleek eta ikasleek kontuan hartu beharreko alerta-argi larantzen eta iraganenezko marra gorrien katalogoa egiteko.

**129.** Herriko ikastetxeekin lan-talde bat sortzea, ikastetxe bakoitzak, jazarpenaren aurkako prebentzio eta jarduketako protokoloa egin eta dinamiza dezan. Protokolo horren helburua jazarpen mota guztien kontra eta, beren beregi, sexu-jazarpenaren kontra egitea izango da, eta batez bere, teknologia berriak erabili gertatzen diren kasuei arreta berezia eskainita.

**130.** Herriko enpresei, indarrean dagoen legeriak ezartzen duena jarraituta, laneko sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio eta jarduketako protokoloa eduki behar dutela jakinaraztea. Betebehar hori betetzeko erabil ditzaketen ereduak eta baliabideak eskaintzea eta gai horri urtero-urtero jarraipena egitea, apurka-apurka (urtetik urtera) enpresa batzuek protokolo hau elaboratu eta marbxan jar dezaten.

### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Alkatetza  
Gizarte Ekintza  
Udaltzaingoa  
Ertzaintza  
Osakidetza

Alkatetza  
Bertintasan arloan

Baliabide orokorrak

Kultura, Kirola eta Gazteria  
AUE-Astiune

Kultura, Kirola eta Gazteria  
Bertintasan arloan

Kultura, Kirola eta Gazteria  
Bertintasan arloan

Ekonomia-sustapena

**131.** Herriko emakumeen elkarte eta taldeekin eta gizarte eragileekin segurtasun gutxiko zonaldeen mapa osatzea, emakumeentzat arriskutsuak diren edota beldurra sortarazten dieten lekuak identifikatzeko (argi gutxi dagoelako, poliziaren presentzia falta delako... edota zeozer gertatu delako, jende asko batzen delako, kontsumo arriskutsua egiten delako edota antzekoengatik).

Emakumeen kontseilua

**132.** Argitasun gutxi dutela-eta segurtasun eskasekoak eta arriskutsuak diren zonaldeak hobeto argitzea.

Hirigintza eta ingurumena

**133.** Arriskutsutzat identifikatzen diren egun, ordu eta lekuetan poliziaren disuasio-presentzia handia, zainza zorrotza eta segurtasun handiagoa bermatzea: festa-esparruak, txosnen zonaldea, gaueko aisialdiko zonaldeak, jendetza pilaketak, eta abar.

Udaltzaingoa

## 5.2. BIKTIMEI ARRETA EGITEA

### V3. Portaera bortitzak garaiz hautematea eta informazioa zabaltzea

- Indarkeria kasuen hautemate goiztiarra handitzea
- Biktima diren emakumeei erabakiak hartzen laguntzea
- Zerbitzu eta baliabideak erabiltzea erabakitzen duten emakume biktimen kopurua handitzea

#### EKINTZAK

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

**134.** Mungiaiko Udalak kasu hauetan aplikatu beharreko jarduketa protokoloaren argibide-gida egitea eta zabaltzea: zer eta nola egin, zer pausu eman daitekeen eta zein ondorio ekar lezakeen, zer baliabideak erabili daitezkeen eta abar, bere seme-alaben babesa eta segurtasuna, zuhurtzia, laguntza, doako aholkularitza juridikoa, doako laguntza psikologikoa eta abar; beti ere, inplikaturako emakumeak hartzen dituen erabakiak errespetatuko direla azpimarratuta.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**135.** Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako irakasleei prestakuntza espezifiko eskaintzea, andrazko ikasleen aurkako portaera bortitzak garaiz antzemateko, jarrera horiei jarraipena egiteko eta gaiaren eboluzioari buruzko informazioa jasotzeko.

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria

**136.** Bigarren Hezkuntzako ikasleekin "On-line harremanak" izeneko tailerra antolatzea eta burutzea, esparru horretan erabiltzen diren indarkeria motak identifikatzeko, neska-mutilen askatasuna eta segurtasuna babestu dezaketen baliabideak eta estrategiak irakasteko eta emakumeen aurkako indarkeria arrisku egoerak antzemateko.

Berdintasun arloa  
Kultura, Kirola eta Gazteria

**137.** Udalen eta erakundeen arteko elkarlan-akordioetan (Berdinsarearen antzekoak) parte-hartze aktiboa sustatzea, informazioa eta antzemate goiztiar ereduak elkartrukatzeko.

Berdintasun arloa

**138.** Gertatzen diren kasuen informazioa identifikatzea, tipifikatzea eta jasotzea, beste udalekin eta erakundeekin bateragarria eta alderagarria den sistema bat erabiltzea.

Berdintasun arloa

#### V4. Biktima diren emakumeak babestea eta arreta osoa bermatzea

- Arreta protokoloek ematen duten babesa erabil dezaketzen pertsonen kopurua handitzea
- Arriskuan dauden emakumeak zaintzeko nahikoa baliabide duten arreta zerbitzuak ugaritzea
- Biktima diren emakumeei laguntza ekonomikoak ematea
- Genero indarkeria egoeraren iraupena laburtzea
- Biktima diren emakumeen segurtasuna bermatzea
- Biktima diren emakumeentzako etxebizitza eskaerak betetzea
- Gizarteratze eta laneratze bermea ematea, programak egokituz
- Arreta prozesuetako kalitate sistema bermatzea

#### EKINTZAK

**139.** Biktimentzako arreta, laguntza eta aholkularitza zerbitzuaren baliabideak urtero ugaritzea.

**140.** Emakumeek erasoak jasaten dituztenerako, larrialdi-geletan erabiliko den udal protokoloa sortzea (emakume horiek eta euren ardurapeko familiak tratatzeko).

**141.** Emakumez eta euren ardurapean dituzten familiez arduratzen diren arreta zerbitzuekin koordinatuta, larrialdi-geletarako arretaren irizpide komunak eta jarraibide bateratuak sortzea.

**142.** Erasoa jasandako emakumeei arreta integrala emateko protokoloan beste elementu bat sartzea, hain zuzen ere, biktimak gertatukoaren inongo erantzukizunik ez daukala sentiarazteko eta gertatutako horren ardura osoa erasotzailearena dela ulertarazteko prozesua.

**143.** Udaleko eta udalen arteko baliabideen gida errebisatzea eta eguneratzea, kontaktu guztiak eta jarraitzeko pausuak jaso eta biktimari, udaleko eta eskolako pertsonalari, emakumeen elkartei eta inplikatu guztiei zabaltzeko.

**144.** Herrian gertatzen diren genero indarkeriako kasuetan esku-hartzeko gomendioen laburpena edota glosarioa prestatzea eta zabaltzea, eta hautemate eta arreta sarearen zerbitzuetako pertsonal guztiari banatzea.

#### UDALEKO ATAL INPLIKATUAK

Gizarte Ekintza  
Ekonomia- eta finantza-arloa

Gizarte Ekintza

Gizarte Ekintza

Gizarte Ekintza

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**145.** Udaltzaingoaren pertsonalari sistematikoki genero indarkeriari buruz aldizkako ikastaro espezifiko eskaintzea, jarduketa protokoloan eta esku-hartzeko gomendioen glosarioan oinarrituta.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza  
Udaltzaingoa

**146.** Mungialde Partzuergoko Gizarte Ekintza arloko pertsonalari sistematikoki genero indarkeriari buruz aldizkako ikastaro espezifiko eskaintzea, jarduketa protokoloan, udaleko eta udalen arteko baliabideen gidan eta esku-hartzeko gomendioen glosarioan oinarrituta.

Berdintasun arloa  
Gizarte Ekintza

**147.** Biktimei eta premiazko egoeran dauden emakumeei babes ofizialeko etxebizitza alokatzeko edo erosteko aukera erraztea.

Lurralde-arloa

**148.** Biktimei osasun sistemarekin duten harremanetan aholkularitza eta laguntza ematea, bere osasuna eta bere ardurapean duen familiarena modu egokian zaintzeko beharrezko diru-laguntzak emanda.

Gizarte Ekintza

**149.** Berdinsarea bezalako beste udalen eta erakundeen arteko kolaborazio akordioetan parte-hartze aktiboa sustatzea, arreta koordinatzeko eta dauden baliabideen erabilera optimizatzeke.

Berdintasun arloa

